Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko martxoaren 9a, asteazkena — 46 — Miércoles, a 9 de marzo de 2022

AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOA — 4 — ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA

## EUSKO JAURLARITZA

## LAN ETA ENPLEGU SAILA

### Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

*EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde ordezkariarena, Urrestarazu Metalworking enpresaren hitzarmen kolektiboaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (20104072012019 kodea).*

AURREKARIAK

*Lehenengoa.* 2022ko urtarrilaren 17an enpresako zuzendaritzak eta langileen ordezkariek sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboa.

*Bigarrena.* 2022ko otsailaren 21ean aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenengoa.* Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritza honi dagokio, honako arautegiaren arabera: Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 14.1.g artikulua (2021-01-29ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzkoak.

*Bigarrena.* Sinatutako hitzarmen kolektiboak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

*Lehenengoa.* Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko, eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

*Bigarrena.* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2022ko otsailaren 22a.—Victor Monreal de la Iglesia, lurralde ordezkaria. (1206)

*Urrestarazu Metalworking enpresa-hitzarmena*

*1. artikulua. Lurralde-eremua, funtzio-eremua eta langile-eremua.*

Hitzarmen hau Urrestarazu Metalworking enpresan lan egiten duten langile guztiei aplikatuko zaie.

*2. artikulua. Indarraldia eta iraupena.*

Hitzarmen honen indarraldia 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

## GOBIERNO VASCO

## DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

### Delegación Territorial de Gipuzkoa

*RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del convenio colectivo de Urrestarazu Metalworking (código 20104072012019).*

ANTECEDENTES

*Primero.* El día 17 de enero de 2022 se suscribió el convenio citado por la dirección de empresa y la representación de los trabajadores.

*Segundo.* El día 21 de febrero de 2022 se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.* La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 14.1.g del Decreto 7/2021, de 19 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 29-01-2021) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Trabajo y Empleo, en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

*Segundo.* El convenio colectivo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

RESUELVO

*Primero.* Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

*Segundo.* Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 22 de febrero de 2022.—El delegado territorial, Victor Monreal de la Iglesia. (1206)

*Convenio de empresa Urrestarazu Metalworking*

*Artículo 1.º Ámbito Territorial, funcional y personal.*

El presente Convenio Colectivo es de aplicación para todos los trabajadores y trabajadoras que prestan servicio en la empresa Urrestarazu Metalworking.

*Artículo 2.º Vigencia y duración.*

La vigencia del presente convenio se extenderá desde el día 01 de enero de 2022 hasta el 31 de diciembre de 2023.



EK\CV GAO-I-2022-01206

Hitzartutako aldia amaituta, hitzarmena automatikoki salatua geldituko da, eta, akordioa berritzeko, negoziaketak hasi beharko dituzte alderdiek, hiru hileko epe luzaezinean.

Berariaz adosten da, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, salatu eta itunduriko iraupena amaitu ostean hitzarmenak ordezkatuko duen beste bat sinatu arte jarraituko duela indarrean.

*3. artikulua. Baldintza hobeak.*

Enpresek ezarritako baldintza onuragarriagoei eutsiko zaie, baldin eta baldintza horiek, oro har, hitzarmen honetan zehazturikoak baino hobeak badira; hala, langileak ez dira kalteturik gertatuko ezarritako soldata-politiken ondorioz.

*4. artikulua. Hitzarmen honetan itundutako lan-baldintzak ez aplikatzea.*

Enpresak aldi baterako hitzarmen kolektibo hau ez aplikatzea nahi balu Gipuzkoako Industria Siderometalurgikorako 2020/2022 Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoa beteko da, Langileen Estatutuan eta aplikatu behar den gainerako araudian aurreikusitakoaz gain.

*5. artikulua. Batzorde paritarioa.*

Hitzarmena sinatzen duten aldeek osatutako Batzorde Paritario bat eratuko da, langileen ordezkariarekin langileen aldetik, eta beste pertsona batekin enpresaren aldetik.

Bi alderdietatik edozeinek bilera-deialdia eskatzen badu, gehienez hamabost eguneko epean bildu beharko da batzordea.

Honako eskumen hauek edukiko ditu:

A) Hitzarmen kolektibo honetako edozein arau interpretatzea.

B) Hitzarmen honetan hartutako konpromisoak garatzea.

Batzorde paritarioko ordezkarien heren batek, dagozkion eskumenak baliatuz, bilera egiteko eskatzen duen bakoitzean, batzordeak bildu beharko du.

Jakinarazpena tarteko dela, bilera egin baino, gutxienez, zazpi egun lehenago egingo du bilera batzordeak. Jakinarazpenarekin batera idazki bat bidaliko da aztertu beharreko gaia azaltzeko.

Batzorde paritarioko langileen ordezkaritzak, eta berdin enpresa-ordezkaritzak, gehienez aholkulari biren laguntza eduki ahal izango du; aholkulari horiek hitza izango dute baina botorik ez.

Edozein kidek izan dezake ordezkoa, batzordeari aldez aurretik jakinarazten badio.

Batzorde Paritarioan sortzen diren desadostasunak Lan Gatazkak Judizioz Kanpo Konpontzeari buruzko II. Akordioan (GEP II) arautzen diren bitartekaritza-prozeduren arabera ebatziko dira (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 2000-04-04koa).

Batzorde paritarioko kide titularrek baimen ordaindua hartzeko eskubidea izango dute batzordea biltzen den egunetan, eta enpresak ordainduko ditu lan hori egitean sortzen diren gastuak.

*6. artikulua. Soldata-igoera.*

Hitzarmen Kolektibo honen indarraldian soldata-igoera hauek egingo dira 2021eko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsariaren kontzeptu guztietan.

— 2022an: 2021eko KPIko (estatukoa) igoera urteko soldata gordinean 2021ko kontzeptu guztiengatik, ondorioak, igoera hau urtarrileko nominan egingo da, ondorioak urtarrilaren 1etik izanik.

Concluida la duración pactada, el convenio quedará denunciado de manera automática, debiendo iniciar las partes, en el plazo improrrogable de 3 meses, las negociaciones para su renovación.

Se acuerda expresamente, a los efectos de lo dispuesto en el art. 86.3 ET, que una vez denunciado y concluida la duración pactada, se mantendrá la vigencia del convenio hasta que se firme el que le sustituya.

*Artículo 3.º Condiciones más beneficiosas.*

Se mantendrán las condiciones más beneficiosas implantadas por las empresas en cuanto aquéllas superen, en conjunto, las especificadas en este Convenio, de tal forma que ningún/a trabajador/a pueda verse perjudicado por la implantación de la política salarial que se establezca.

*Artículo 4.º Inaplicación –descuelgue– de las condiciones de trabajo pactadas en el presente convenio.*

En caso de que la empresa pretendiera la inaplicación temporal del presente convenio colectivo se estará a lo dispuesto en el Convenio Colectivo para la Industria Siderometalúrgica de Gipuzkoa 20020/2022, además de lo previsto en el Estatuto de los Trabajadores y demás normativa de aplicación.

*Artículo 5.º Comisión paritaria.*

Se constituye una Comisión Paritaria formada por los firmantes del Convenio con el representante de los trabajadores por la parte social y por otra persona por la parte empresarial.

Solicitada la convocatoria de dicha Comisión por cualquiera de las dos partes, ésta deberá reunirse en el plazo máximo de quince días.

Serán sus competencias:

A) Interpretación de cualquier norma de este Convenio Colectivo.

B) Desarrollar los compromisos contenidos en el presente convenio.

La Comisión Paritaria se reunirá siempre que 1/3 de cualquiera de las representaciones lo solicite en virtud de las competencias atribuidas.

La Comisión se reunirá mediante comunicación, al menos con siete días de antelación a la celebración de la reunión. A la comunicación se acompañará escrito donde se plantee la cuestión objeto de interpretación.

La representación de los trabajadores, así como la representación empresarial de la Comisión Paritaria podrá ser asistida de 2 asesores como máximo, con voz, pero sin voto.

Cualquier miembro podrá tener suplente previo aviso a la comisión.

Las discrepancias producidas en el seno de la Comisión Paritaria se solventarán de acuerdo con los procedimientos de mediación regulados en el II Acuerdo sobre Solución Extrajudicial de Conflictos Laborales-Preco II (BOPV de 04/04/2000).

Los miembros titulares de la Comisión Paritaria tendrán derecho a permiso retribuido para los días en que se reúna ésta y los gastos originados en el desempeño de esta labor serán sufragados por la empresa.

*Artículo 6.º Incremento salarial.*

Durante el período de vigencia del presente Convenio Colectivo se realizarán los siguientes incrementos retributivos, en todos los conceptos retributivos vigentes al 31 de diciembre del 2021.

— Año 2022: Incremento del IPC (estatal) del 2021 sobre el salario bruto anual por todos los conceptos del año 2021, este incremento se realizará en la nómina de enero y con fecha de efectos desde el 1 de enero.

EK\CV GAO-I-2022-01206

— 2023an: KPI + % 1 igoera urteko soldata gordinean 2022ko kontzeptu guztiengatik, ondorioak 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean izanik, % 2 bermatua.

2022ko ekitaldiko etekin garbia salmenten % 1,5etik gorakoa bada, % 0,5eko igoera ere ezarriko da (kontsolidaezina), hau da, KPIa + % 1,5.

2022ko ekitaldiko etekin garbia salmenten % 5etik gorakoa bada, % 1eko igoera ere ezarriko da (kontsolidaezina), hau da, KPIa + % 2.

*7. artikulua. Lanaldiaren banaketa.*

Lanaldia banatzeko, Gipuzkoako Industria Siderometalurgikorako 2020/2022 Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoa beteko da, Langileen Estatutuan eta aplikatu behar den gainerako araudian aurreikusitakoaz gain.

*8. artikulua. Lan-baldintzen funtsezko aldaketa.*

Lan baldintzetan, taldekoetan eta/edo banakoetan, funtsezko aldaketak egiteko, Gipuzkoako Industria Siderometalurgikorako 2020/2022 Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoa beteko da, Langileen Estatutuan eta aplikatu behar den gainerako araudian aurreikusitakoaz gain.

*9. artikulua. Bajak.*

Langileen aldi baterako ezintasunak, hala lanbidea jatorri dutenak nola jatorri arruntekoak, honela geratuko dira araututa:

Jatorri arrunteko ezintasunak bajako 60. egunetik aurrera osatuko dira.

Hitzarmen honetarako itundutako indarraldia kaltetu gabe, eta hitzarmen berri bat sinatzea kaltetu gabe, enpresak konpromisoa hartzen du, 60. egunetik aurrera beti, aldi baterako ezintasunagatiko prestazioak honela osatzeko:

— Jatorri arrunteko ezintasunak langileak jasotzen zuen soldataren % 100eraino osatuko dira 60. egunetik aurrera.

Laneko jatorria duten ezintasunak (lan-istripua eta laneko gaixotasuna), lehen egunetik osatuko dira, honela:

Hitzarmen honetarako itundutako indarraldia kaltetu gabe, eta hitzarmen berri bat sinatzea kaltetu gabe, enpresak konpromisoa hartzen du, aldi baterako ezintasunagatiko prestazioak honela osatzeko:

— Lan-istripu eta laneko gaixotasunagatiko bajak langileak jasotzen zuen soldataren % 100eraino osatuko dira.

Horretarako, enpresak konpromisoa hartzen du, honela eskatuko balitzaio, hitzarmen honetatik at behar liratekeen dokumentuak sinatzeko konpromiso hori jasotzeko.

*10. artikulua. Aplikatzeko lehentasuna. Lurraldeko Hitzarmen Kolektibo Sektorialarekiko lotura.*

Hitzarmen honetan aratu ez den guztia ebazteko, Gipuzkoako Industria Siderometalurgikorako 2020/2022 Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoa hartuko da kontuan, eta, ondorioz, han jasotakoa aplikatu beharko da ezinbestean, eraginkortasun orokorreko beste hitzarmen bat adostu bitartean, kontuan izan gabe gai bereko estatu eremuko beste hitzarmen batzuk lehentasunez ezartzekoak diren ala ez.

*11. artikulua. Soldata-taulak.*

Alderdiek gutxieneko soldata-taulak ezartzea adostu dute. Taula horiek aplikatuko dira enpresan, eta erreferentzia gisa hartutakoan, Gipuzkoako Industria Siderometalurgikorako Hitzarmen Kolektibo Probintzialerako Hitzarmen Kolektiboaren

— Año 2023: Incremento del IPC + 1 % sobre el salario bruto anual por todos los conceptos del año 2022, y con fecha de efectos desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre de 2023, garantizando un mínimo del 2 %.

Condicionando una subida adicional de un 0,5 % (no consolidable) es decir IPC+1,5 % si el beneficio neto del ejercicio del año 2022 es superior al 1,5 % de las ventas.

Condicionando una subida adicional de un 1 % (no consolidable) es decir IPC+2 % si el beneficio neto del ejercicio del año 2022 es superior al 5 % de las ventas.

*Artículo 7.º Distribución de la Jornada.*

Respecto a la distribución de la jornada, se estará a lo dispuesto en el Convenio Colectivo para la Industria Siderometalúrgica de Gipuzkoa 2020/2022, además de lo previsto en el Estatuto de los Trabajadores y demás normativa de aplicación.

*Artículo 8.º La modificación sustancial de condiciones de trabajo.*

Respecto a la modificación sustancial de las condiciones de trabajo, colectivas y/o individuales, se estará a lo dispuesto en el Convenio Colectivo para la Industria Siderometalúrgica de Gipuzkoa 2020/2022, además de lo previsto en el Estatuto de los Trabajadores y demás normativa de aplicación.

*Artículo 9.º Bajas.*

Las incapacidades temporales del personal, tanto de origen profesional, como de origen común, quedarán regulados de la siguiente manera:

Las incapacidades de origen común se complementarán a partir de los 60 días de baja.

Sin perjuicio de la vigencia temporal pactada para este convenio, y sin perjuicio de la suscripción de un nuevo convenio, la empresa se compromete a que, y siempre a partir del día 60 se complementará las prestaciones por IT de la siguiente forma:

— Las incapacidades de origen común se complementarán a partir del día 60 hasta el 100 % del salario que viniera percibiendo el trabajador.

Las incapacidades de origen laboral (accidente de trabajo y enfermedad profesional), se complementarán desde el primer día de la siguiente forma:

Sin perjuicio de la vigencia temporal pactada para este convenio, y sin perjuicio de la suscripción de un nuevo convenio, la empresa se compromete a que complementará las prestaciones por IT de la siguiente forma:

— Las bajas de accidente de trabajo y enfermedad profesional se complementarán hasta el 100 % del salario que viniera percibiendo el trabajador.

A tal efecto, la empresa se compromete a que, si así fuera requerida, suscribirá los documentos que fueran necesarios al margen de este convenio para plasmar dicho compromiso.

*Artículo 10.º Prioridad aplicativa. Vinculación al Convenio Colectivo Sectorial Provincial.*

En todo lo no regulado en el presente convenio se estará a lo establecido en el Convenio Colectivo para la Industria Siderometalúrgica de Gipuzkoa 2020/2022, o el que le sustituya, obligándose en consecuencia a la aplicación del contenido del mismo con independencia de la prioridad aplicativa de otros convenios de ámbito estatal que pudieran concurrir con éste.

*Artículo 11.º Tablas salariales.*

Las partes acuerdan establecer unas tablas salariales mínimas que serán de aplicación en la empresa, que serán una vez cogidas como referencia las previstas para el Convenio Colectivo Provincial para la Industria Siderometalúrgica de Gipuzkoa

Batzorde Mistoaren Aktan 2022rako berrikuspenean aurreikusitakoak izango dira, hitzarmen honen 6. artikuluan adostutako eguneraketekin.

Gauzak horrela, alderdiek adostu dute enpresan aplikatuko diren gutxieneko soldata-taulak urtez urte eguneratuko direla, adostu daitezen eguneraketen arabera.

*12. artikulua. Kategoriak.*

Pertsonen ebaluazioa egin eta ezarrita dauden eginkizunak eta helburuak bete diren aztertu ostean:

Lau peoi espezialista 3. mailako ofizialaren lanpostura igoko dira. Epea: hilabete.

en la revisión para el año 2022 en el Acta de la Comisión Mixta del Convenio Colectivo, con las actualizaciones acordadas en el artículo 6.º de este convenio.

Así las cosas, las partes acuerdan que las tablas salariales mínimas de aplicación en la empresa que se establezcan, se irán actualizando, año a año en función de las actualizaciones que se vayan acordando.

*Artículo 12.º Categorías.*

Tras realizar una evaluación de las personas y del cumplimiento de las funciones y de los objetivos marcados:

Ascenso a cuatro peones especialistas a oficiales de 3.ª Plazo un mes.

EK\CV GAO-I-2022-01206